


Astekaria



elgoi

Patxi Arriola eta Dalo, Espainiako txapeldun



BODEGAS ERRASTI, S.L.

Bodegas Errasti

Banatzailea: Julio Bueno

- "Solar Gailur" ardoak
- "Ardandegi" Ardoak
- "ZUDUGARAI" Getariako txakoliña
- "Cavas HILL" en ordezkari-tza
- "ILAGARES" ardo nafarraren ordezkari-tza

Etxerainoko banaketa

Ura • Patata • Makailoa • Likoreak

Errosario, 20 • ☎ 74 02 37 • ELGOIBAR

accent

Hyundai Berria

ACCENTATU ZAITEZ

Hiru, lau eta bost ateko bertsioak.

1.445.000 ptatik*.

Gainera Hyundaik 3 urteko garantia

eta 24 orduko asistentzia eskaintzen dizkizu.

Accentatu zaitez.

Zatoz zure kontsesionaria.



BERTSIOEN ARABERAKO EKIPAMENDUAK: **Airbag, alboetako babes**

egitura, aire egokitua, direkzio lagundua, atzeranzko ispilu elektrikoa, mailetegia eta depositoa barrutik zabaltzeko aukera, antena elektrikoa, eserleku eta gerriko erregulagarriak, ixte zentralizatua, leiho igogailu elektrikoak, atzeko burupausagailuak, irratikaset estereoa.

1300 eta 15000 cc bitarteko **MOTORIZAZIOAK**, 82 eta 90 z.ko potentziarekin.

Injekzio puntuanizdun 12 balbulatako motorrak.

BANATZAILE OFIZIALAK:

ELGOIBAR: MENDARO AUTOAK, S.A. K/ OIaso, 25. 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa). Tel 74 32 00.

MENDARO: MENDARO AUTOAK, S.A. Errep. Nazionalea 634, Km. 52. 20850 MENDARO (Gipuzkoa). Tel 75 50 72.

DONOSTIA: MENDARO AUTOAK, S.A. Zurriola Etorbidea, 16 - Behea. 20002 DONOSTIA (Gipuzkoa). Tel. 28 33 33.

* Penintsula eta Balearretarako proposatutako prezioak, BEZa, garraioa eta matrikulazio zergak barne.

100.000 km artekoa.
(Piezak eta eskulana)



teko
rantia

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:
Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:
Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:
Alberto Agirreazaldegi.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:
Anjel Ugarteburu.

ERREDAKZIO KONTSEILUA:
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua.

KAZETARIAK:
Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:
Maite Rementeria,
Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:
Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:
Itziar Agirregomezkorta, Ana
Aizpiri, Pello Aizpurua, Gotzon
Arrieta, Pello Arrieta, Belen
Arrizabalaga, Jon Barandiaran,
Mikel Cornejo, Asier Etxaniz, Felix
Etxeberria, Itziar Fernandez, Koldo
Galdona, Jose Mari Galdos, Ina
Garagarza, Gotzon Garate,
Joseba Gorosabel, Xabier Gorriti,
Alfonso Guilló, Maite Iriondo,
KOKOE, Mikel Kornejo, Eduarne
Korta, Enrike Larrañaga, Imanol
Larrañaga, Nerea Lodoso, Jesus
Mari Makazaga, Iñaki
Odriozola, Jose Inazio Sarasua,
Olga Unzilla, Miryam Villasante,
Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:
Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta
iritzien erantzunkizunik.



Quosque tandem?

A bagadune, aukera, aitzakia edo dena-delako hau aprobetxatuz, bi gora-beheraz hitzegiteko parada eta astia hartu nahi ditut gaurkoan.

Ezaguna da gure Herriaren historian bitxikeriak mila eta bat izan direla. Edozein herri normalizatut bere egunerokotasunean dituen aferez gain, gurean, bikoiztu eta hirukoiztu ere egiten direla, inoren mende bizitzeak berekin dituen aje, alienazio eta morrontzak direla kausa. Ardo nahi izan baina ardo izatera iristen ez den txakolinaren kasua dela, alegia, gurea, Arantzazuko poetak esaten duen bezala. Metaforak metafora, alegia, kaleko hizkeran... herri anormal bat besterik ez garela, aixkidia!

Eta horri gutxi iritzita edo, anormaltasun honen mugek, ordea, agiriko zedarririk ez dutela dirudi, hala ere.

Hona egunotako bat: Zer anormalago bi hizkuntza darabiltzan herri batean Ararteko elebakarra izatea baino? Zentzunak ez ezik iritzi maioritarioak ere erakutsi behar luke elebitasuna dagoen toki batean horrek horrela ezin lezakeela funtziona. Baina bai zera! Gurean ez!!

Gehiago edo gutxiago istima


nezake Xabier Markiegi jauna, baina uste dut erraturik dabilela. Bere hautagaitza erretiratu egin behar lukeela deritzot. Bestela, oraingoan ere, interes pertsonalak (Quosque tandem?) interes kolektiboaren gainetik jarriko dira.

Baldin herritarrok eskubidea badugu gure kezka zuzenean eta trukorik gabe Arartekoari aurkezteko, batetik, eta Administrazioarekin euskaraz komunikatzeko eskubidea eta honek betearazteko eginkizuna, bestetik, nire kaskoan bi eskubide horiek erraz uztartzen ditut, baina ez da hori, ageri denez, aginteko alderdi politikoei bideratu gura dutena...

Hona bestea, hau aspaldikoagoa: Zer anormalago Euskal Herritik at euskaraz eta hemen etxean erdaraz egiten duen euskalduna baino? Ez da, bestalde, esnobismo berriz sortutako jokamoldea, dakigunez. Urteak dira Institutuko ikasleetan nabaritu eta aitortzen didatela horrelatsu jokatzeko dutela ikasketa bidaia-eta. Eta ez dira bakarrak. Ba, kontraesan hau ere lotu ezinik nabil. Eta, egia esan, aurrekoak baino gehiago sumintzen dit barrua. Ai, nerabezaroaren zuldar iragankor baino ez balitz! *Hakuna matata.*

Andres Alberdi

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

“Ba al dago txakurak kaletik erabiltzeko arau edo legerik?”

Udaltzaingoko sargentuarekin egon gara eta zera erantzun digu: “1994ko azaroaren 28an onartutako ordenantzen arabera: ‘Bide publikoetan eta pertsonak ibiltzen diren beste leku batzuetan, txakurak lepokotik edo uhaletik helduta eramango dira eta zirkunstantzialki beren jabeen alboan. Moxalaren erabilera Udal Agintaritzak erabakiko du egoerak hala eskatzen duenean eta inoiz haginka egin badute edo arriskutsuak direla jakiten bada.’ Lege hau betetzen ez bada gutxienik ere 5.000 ptako isuna izango da.”



TXALOAK

Txaloa gazte baten eskutik datorkigu. Bere ustez, Herriko Antzokia zabaldu zutenetik Elgoibarko kultur mugimendua handitzen ari da. Berau erreferentzia puntu bihurtzen ari omen da eta antolatzen diren ekitaldietara (zinea, antzerkia, musika...) jendea joaten dela esan digu. Kultur elkarteak antolatzen eta jendea parte hartzen animatu nahi ditu aurrerantzean ere.

ESKUTITZAK

“Baina badakigu nortzuek duten errua”

Astero astero bezala, BARREN aurrenetik azkenera irakurri ondoren, etxeko besteren bati pasatzen diot, berak ere berdina egin dezan. Handik laisterrera, urdaila biraka hasten zait, zerbait pozintsu irentsi banu bezala eta zeharoko inpotente bezala aurkitzen naiz. Berehala konturatzen naiz zerk egin didan. Zuk, D. Juan, GALbaez pasatuz, gari ale garbiak alde batean, lastoa eta gari-ale zabortuak bereizten dituzu. Nik, nere burua zabor tartean uste izanez, lehenbailehen inpernu lagunetatik atera nahiean, “letaniak” errezatzeari eman nion. Arrapaladan ateratzen zitzaizkidan “letaniak”, baina, erantzuna “ora pro nobis” izan beharrean, “baina badakigu nortzuek duten errua” ateratzen zitzaidan.

Orain, denak ezin gogoraturik, hona hemen banaka batzuek: “Colza olioak 600 hildako, 25.000 baino gehiago kaltetuak izan ziren eta 15 urte geroago, gure botoei esker oraindik ez da bukatu epairik: “baina badakigu nortzuek duten errua”.

Filesa, Malesa, mila Palomino eta beste mila diru ustelkeriak ez dira argituko gure botoei esker: “baina badakigu nortzuek duten errua”. Tragaperrasak, Lantikak, Max Centerrak eta beste mila ustelkeria ez dira argituko gure botoei esker: “baina badakigu nortzuek duten errua”. GALen arazoan, botoa eta paperak pasa dizkiegu eta argitaratzen bada gure gogoz kontra izango da: “baina badakigu nortzuek duten errua”. GonzALEz, Auzoberri, Danbo, Jauregi

eta kate muturrerainoko denak, zure gari garbi artean daude: “baina badakigu nortzuek duten errua”. Euskadin, %20 inguruko langabezia dagoen une berean eta Herriaren poltsikotik, soldata ederra eta 50 milioiko kotxean dabilta: “baina badakigu nortzuek duten errua”.

Seihreun (600) euskal- seme behuren mesederako bananduak eta beren etxeetakoak, errepideetan tarteka bizia bera ere utziaz geografia ikastera behartuak: “baina badakigu nortzuek duten errua”. Orain 30-35 urte Herriak eraikitako ikastolak eta milaka milioi pezeta patrikatik ordaindu ondoren, 15 urte iraun dugu Buesaren esku seguruetan uzteko: “baina badakigu nortzuek duten errua”. Orain 75 urte (1919) EUSKALTZAINDIA sortu zen EUSKARA batura bideratzeko eta mila aldiz zangotrabatu dugu eta gaur REAL ACADEMIA DEL PAIS VASCO dugu: “baina badakigu nortzuek duten errua”. Orain 25 urte inguru Rikardo Arregi buru zela AEK Euskal Herriko zazpi lurraldeetara zabaldua zegoenari, indarra kendu nahian, gutxiagotzen ari den HABE sortu genuen: “baina badakigu nortzuek duten errua”.

Orain bost urte, HERRIA ez zegoen Euskaldunon EGUNKARIA irakurtzeko preparatua, baina honi indarra kentze aldera, beste bat sortu nahi izan genuen: “baina badakigu nortzuek duten errua”.

BuruJabetza ala buru GAbetza? Fray Martin-i santu izateko koroitxo bat falta zaio: “baina badakigu nortzuek duten errua”.

Abar eta mila abar. Amen.

Felix Etxeberria "Parapan"

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Blanka Jauregik** lagatakoa da. Berak esan digunez 1946. urtean ateratakoa da, urtarrilaren 20an Don Antonio Arrillagari egindako omenaldian, hain zuzen ere.

Omenaldian, besteak beste, meza lehenengo, gero dantzak Plazan, lagun arteko bazkaria eta arratsaldean jaiak izan ziren. Omenaldi ekitaldian domina bat jarri zitzaion Antonio Arrillagari "Al mérito de la sanidad" eta liburu batean jende mordoak sinatu zuen mediku ezagunak egindako lanaren errekonozimendu modura.

Erretratuan azaltzen diren neskek omenaldi egunean dantza egin zutenak dira. Ziur gogoz jardun zutela euren abileziak erakusten.

Zeintzuk diren? Goitik behera, ezkerretik hasita:

Blanquita Jauregi, Lolita Astigarra, Begoña Osoro, Karmentxu Iriondo, Lolita Canales, Ilga Intxaurraga, Dolores Iriondo eta Maite Zabala.

Bigarre ilaran: **Maria Luisa Garate, Libe Ansola, Agurne Etxaniz, Lucia Arrieta, Isabel Aizpitarte, Karmele Gabilondo, Margarita Estarta eta Arantza Etxaniz.**


Eserita: **Maite Vallejo, Miren Beloki, Ana Mari Urbietta, Miren Opakua eta Celia Barrenetxea.**



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea
Tel-Fax: 74 04 89



PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAREN ERATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

SAN ANTONENKO ARTISAU AZOKA:

Herriko artisauen sekretuak ezagutuz

Artisauen bilduleku izan zen joan den igande goizean Plaza Handia. Mila txokotik etorritakoak ezezik bertakoak ere, herriko artisauak bertan izan ziren beren tailerretan lantzen dituzten teknikak erakusten. Narruzko gerriko, pultsera zein belarritakoak, egurrezko goilarak eta makuluak,

gantxiloz egindako gortina eta mantel finak, buztinezko lorontzi dekoratuak,... Guzti hauek egiteko erabiltzen dituzten teknika anitzen erakusbide izan zen San Antoneko ohizko artisautza feria. Hona hemen gure herriko artisauen postuetan ikusi eta ikasi ahal izan genuena.

ZERAMIKA

Josek erakutsi zituen objektuak bi mota buztinekin eginda daude. Buztin gorriarekin batzuk, eta errefraktarioa deitzen denarekin beste batzuk. Bien arteko ezberdintasuna zera da: buztin errefraktarioak besteak baino temperatura altuagoa behar duela egosteko. Teknikei dagokienez, eskuz, hau da txurroen edo plaken bidez, eta tornoan egindakoak izan daitezke. Dekoratzeko, esmalteak eta buztin koloratuak erabiltzen ditu Josek.

•ZENBAIT DATU•

- **EGILEA:** Jose Juaristi.
- **ADINA:** 40 urte.
- **NOIZTIK LANGINTZA HONETAN:** Duela 14 bat urte.
- Afizioa ezezik ofizioa ere bada Joserentzat zeramika.



EGURREZKO GOILAREAK

Aiztoak, aizkorak, gubiak eta antzerako tresnen bidez egiten ditu egurrezko sardeak edo tenedoreak eta goilarak. Hauez gain, beste irudi batzuk ere egin izan ditu, ferian ere ikusgai izan dituenak. Ia beti erabiltzen du egur klase bakarra: urkia. Beste mota batzuetako egurrekin egin izan du saiakerarik baina egurrik egokiena, garbiena, urkia omen da. Tamaina guztietako goilarak eta sardeak egiten ditu eta salneurri guztietakoak. Ehun pezetatik gora eskulan dotore bat eskura daitekeela esan digu Leandrok.

•ZENBAIT DATU•

- **EGILEA:** Leandro Rodriguez.
- **ADINA:** 65 urte.
- **NOIZTIK LANGINTZA HONETAN:** Duela 8 urte.
- Egurra lantzea "kapritxo" bat da, afizio hutsa. Jubilatua dago eta ez du sekula egurra lantzetik bizitzeko pretentsiorik izan.



EGURREZKO TAILAK

Gaztetatik hasitako zaletasun honen adierazgarri dira arotz honek egindako egurrezko kandelabroak, estutxeak, eskudo edo armarriak eta eskopetentzako kulatak ere bai. Hain preziatuak diren kutzak ere dotore egiten ditu Josek, baina handiegiak direnez, argazkitan baino ezin izan genituen ikusi. Haritza erabiltzen du batez ere, baina gaztaina eta inoiz sapelia ere erabili izan ditu. Nahiko zaila omen da tailatzea, denbora asko behar da teknika ganoraz ikasteko eta gauza guztietan bezala, ordu mordoa sartu eta ez laga inoiz. Eskulan huez gain, baserrietako fatxadak tailatu izan ditu; azkena Atxondoko baserri batekoa.

•ZENBAIT DATU•

- **EGILEA:** Jose Elizondo.
- **ADINA:** 65 urte.
- **NOIZTIK LANGINTZA HONETAN:** 13 urte t'erdi zituenetik.
- Afizioa eta ofizioa estuki lotuak daude Joseren kasuan, ogibidez arotza baita.



•ZENBAIT DATU•

- **EGILEA:** Mari Carmen Elorza.
- **ADINA:** 54 urte.
- **NOIZTIK LANGINTZA HONETAN:** 10 urterekin hasi zen.
- Etxekoandre honek hobby modura egiten du gantxiloa.



EGUR TAILERRA

Egur tailerrak jarritako erakusketan, urtean zehar ikasleek egindako lanak ikus zitezkeen. Oleoak, marrazkiak, grabatuak... Orain grabatu ikastaroa egiten ari dira Egur-en eta beraiek esan zigutenez, arrakasta handia izaten ari da. Jendea gero eta gehiago animatzen da horrelako gauzak ikastera, eskulanek izandako gorakadaren adierazgarri, nonbait.

GANTXILLOA

Izara bordatuak, tapeteak, gortinak, butakentzako estalkiak... Pazientzia, pultsua eta bista ezin hobearekin, zein esku bizkor eta trebeak dituen ikusteko aukera izan genuen. Txikitatik hasi zen gantxiloarekin, itzelezko deskubrimentua izan omen zen Mari Karmenentzat. Trukoak ikastea beharrezkoa da baina etengabe gauza berriak ikasten direla esan zigun. Teknika ezberdinak daude, punto kruz, bordatua, bainika, festoia... Gaurregun gantxiloa modan dagoela esan digu Mari Karmenek, toailak, izarak eta gortinak gero eta gehiago ikusten dira panti-



NARRUA

Ahuntza, behia eta ardiaren narruarekin eginda daude Triniren eskulanak. Boltsak, motxilak, erliebezko koadroak eta bestelako irudiak sortzen ditu. Sei urte darama neska honek narruaren inguruko teknikak ikasten eta orain Eskoriatzan dabil gauza

berriak ikasten. Koloreak "tinta" China deitzen denarekin lortzen ditu, oraingoz erabiltzen duen koloreztatzeko teknika bakarra da. Aurrera begira, salmenta eta erakusketa lantegitxo bat jartzea nahiko lukeela aitortu zigun Trinik.

•ZENBAIT DATU•

- **EGILEA:** Trini Cruz.
- **ADINA:** 25 urte.
- **NOIZTIK LANGINTZA HONETAN:** Duela 6 bat urte.
- Afizioa izateaz gain, ofizio modura ere planteiatzen du.



ARTILEA

Josek, aitarengandik ikasitako teknika, bere iloba Ainhoa jasoko du tradizioa gal ez dadin. Azken hau igandean haria kardatzen ikusi ahal izan genuen. Ardien haria erosten denetik, hainbat urrats jarraitu behar dira produktu bukatua eduki arte. Lehenik txinbo jaboiarekin bitan garbitu, gero haria zabaldu, kardatu, haria egin eta ondoren sokak edota galtzerdiak josi. Sokak Josek egiten ditu eta abereentzat edo abarketak lotzeko izaten dira. Galtzerdiak, ahal duenean behin-tzat, berak josten ditu. Saldu, dotore xamar saltzen omen du. Gabon Zahar ferian esaterako, 16 pare gal-tzerdi saldu zituen.

•ZENBAIT DATU•

- **EGILEA:** Jose Egidazu (73 urte) eta Ainhoa Ansola (20 urte).
- **NOIZTIK LANGINTZA HONETAN:** Duela 3 bat urte.
- Afizio handia dion arren artilea egiteari, ofizioa ere bada salmentaradikatzen baita.



•ZENBAIT DATU•

- **EGILEA:** Maite Amoategi (24 urte) eta Junkal Ortiz de Villalba (26 urte).
- **NOIZTIK LANGINTZA HONETAN:** Duela 5 bat urte.
- Gogoz aritzen badira ere, estainua lantzetik bizitza ateratzeari ezinezkoa deritzaie.



PORTZELANA HOTZEAN EDO PORTZELANA RUSOA

Eskulanetan iaioa den gizon honek ez du hotzean egindako portzelana bakarrik lantzen. Era guztietako materialeekin jarduten du: azidoa, estainua, arto mamia edo hotzeko por-tzelana, paper pasta... Dena den, hotzeko portzelana du eskula-

nik gogokoena. Formola, kola, arto mamia eta beste elementu batzuekin pasta egiten da eta egosi. Behin egositakoan egiten dira irudiak. Loreak, koadroak, xake tableroa... Klaseak ematea gustuko du eta egizkizun horretarako zein erakusketa eta salmentarako lokal bat irekitzeko asmoa du.

•ZENBAIT DATU•

- **EGILEA:** Jose Menbrillera.
- **ADINA:** 37 urte.
- **NOIZTIK LANGINTZA HONETAN:** Duela 15 bat urte.
- **Zaletu modura hasi bazen ere, ogibide bihurtzekotan dabil.**



•ZENBAIT DATU•

- **EGILEAK:** Iruñe Betelu, Edurne Goñi, Amaia Alonso eta Alicia eta Irene Dominguez.
- **ADINA:** 20-30 urte bitartean.
- **NOIZTIK LANGINTZA HONETAN:** 94ko urritik.
- **Aurrera begira enkuadernazio enpresa sortzea nahiko lukete.**

ENKUADERNAZIOA

Joan den urrian egindako ikastaro batetik enkuadernazioak eta paperezko eta kartoizko objektuak egiteari ekin zioten bost neska hauek. Argitalpenak enkuadernatu, eta papera eta kartoiarekin koadernoak, karpetak, kaxak, estutxeak eta horrelakoak egiten dituzte. Margoketa ere beraiek egiten dute eskuz, inprentako tinta deitzen denarekin, hain zuzen. Hondatuta dauden liburu zaharrak ere konpontzen dituzte eta orri solteen kasuan, pegatu eta enkuadernatu. Enkuadernaketa teknika tradizionala da, eskuz josi, pegatu eta azalak jarri.



KOSKAKETA

Eibarren damaskinatua ikasi ondoren estainuarekin hasi ziren bi neska hauek lanean. Koskaketa edo gaztelerazko "repujado" estainuari erliebea ateratzea baino ez da. Forma ezberdineko tresnen bidez, punta birildunak, punta zorrotzdunak e.a. erabiliz, forma bat edo bestea ematen diote estainuari. Irudi edo marrazki ezberdinak egiten dituzte: loreak, aurpegiak... Haez gain lepokoak, ilerako gantxoak, erlojuak, ispi-luak eta bestelako formak ere lantzen dituzte. Disdiratsu geratzeko, tinta ematen zaio eta gero alkoholarekin igurtzi. Emaizta ezin dotoreagoa da.

■ Emakumeentzako defentsa pertsonalerako ikastaroa

Olaizaga kiroldegiak emakumeei zuzenduriko defentsa pertsonalerako ikastaroa antolatu du. Ikastaroa hilaren 28an hasiko da eta sei larunbatetan segidan izango da, goizeko 10etatik 12ak arte. Izen-ematea Kiroldegian egin ahal izango da edo 74 13 61 zenbakira deituta.

■ Morkaikoren Batzar Orokorra hilaren 25ean

Morkaikok urteko batzar orokorra egingo du hil honen 25ean, asteazkena, arratsaldeko 7,30etan. Kultur Etxean izango den batzarrean 1993 eta 94ko txostenak, zuzendaritza berriaren onarpena eta 1995ko ekintzak eztabaidatuko dira. Bestetik, federatutako bazkideei 95ari dagokion kuota egun hauetan zehar kobratuko zaiela jakinarazi nahi zaie (94an federatuta daudenei bakarrik). 95ko federatu txartela jasotzeko aurrezki kutzako ordainketa erreziboa aurkeztu beharko da. Kanpoan bizi direnei postaz bidaliko zaie. Eskuz ordaindu nahi duenak nahikoa izango du

■ Nathalia T5ko "El Trampolin" programan

Nathalia abeslari elgoibartarra Tele 5 kateko "El Trampolin", promesa gazteei zuzenduriko programan agertuko da datorren otsailaren 7an gaueko 9,30etan. Programa aurrez grabatuko da. Hil honen 23an hain zuzen, joango da Nathalia Madriler "canción española" atalean abestuko duen "Madrina" abestia grabatzera. Programan agertu ahal izateko, aurrez selekzio bat egiten dute. Nathaliak zuzenean finalerdietan hartuko du parte. Atal bakoitzean bi kantari arituko dira eta irabazlea maiatzean izango diren finalerara pasatuko da. Nathalia TVE 1 kateko "Pasa la vida" saioan ere izan zen eta han, parte hartu zuten abeslari guztien artetik



Ke ugari eragin zuen joan den ostiralean, hilak 13, Ermuaranbide 15eko teilatuan sortutako suteak. Eguerdiko 1,15ak aldera, kebidetan sortu ziren sugarrak teilaturaino hedatu ziren. Abisua eman bezain pronto Udaltzainak eta Elgoibarko suhiltzaleak sutearen lekuan agertu ziren eta sugarrak itzali zituzten Eibarko suhiltzaileen laguntzarekin.

■ Guillermo Garateren aurkako salaketa

Elgoibarko Gazte Asanbladak Guillermo Garate kultur zinegotziaren aurkako salaketa jarri zuen larunbatean Eibarko 2. instrukzio epaitegian. "Kulturako Batzordeko presidentearen aurkako salaketa, -azaldu zuten talde horretako kideek- Gazte Asanbladari lokal publikoak erabiltzea ukatu diolako jarri dugu. Egoera berdinean aurkitzen diren beste kolektibo batzuek, Zazpiki irriatiak eta Talde Antimilitaristak adibidez, guri ukatu zaizkigun lokalak (Herriko Antzokia, kontzertuetarako oholtza eta Kultur Etxea) erabiltzeko aukera izan dute". Gazte Asanbladako kideen ustez, beraiekiko axolagabeki jokatu du Garate jaunak. "Herriko errekursoak bere iritzira erabiltzeagatik eta herritarren onerako izango delakoan Guillermo Garateren dimisioa eskatzen dugu." Bestetik, 1993ko Gaztetxearen desalojoan 9 pertsonak jarritako salaketa artxibatu egin duela epaileak adierazi zuten. Desalojo berean Rafa Feijook eta Justo Arriolak jasandako tratu txarren eta irainen prozesuak "bere horretan jarraitzen duela uste dugu eta aurrera egingo duelakoan gaude, Ertzainetariko bat errekonozimendu errondan ezagutu genuen arren".

■ Lapurreta Etxeberria farmazian

Hilaren 15ean, igandea, arratsaldeko 5ak aldera, lapurreta izan zen San Ana kaleko Etxeberria farmazian. Lapurrak, E.D.M. 21 urteko azkoitiarrak, labana erabili zuten lapurreta egiteko. Zertxobait beranduago Elgoibarko Udaltzaingoak Sigma parean gaztea atxilotu zuten. Astelehenean, Eibarko auzitegiko epaileak lapurra Martutenen sartzea erabaki zuten.

■ Mauxitxa txarangak Goraintzi programan joko du

Mauxitxa txaranga ETB 1eko *Goraintzi* programan agertuko da igande honetan, hilak 22. Txarangako musikoek elgoibartarrentzat ezagunak diren hainbat pieza joko dituzte. Dagoeneko Musika Banda, Herriko Dultzaineroak eta Plaentxi bikotea pasa dira programa horretatik. Programa arratsaldeko 3,30etan hasiko da.

Elizako obren lehen fasea bukatzeaz dago Brues S.A. enpresakoek adierazi dutenez. Obren ardura daraman Juan Manuel Encio arkitektoak lanen bilakaerari buruzko xehetasunak azaldu zituen joan den ostiralean elizako arkupeetan ikusgai egon den argazki erakusketa abiapuntuzat hartuta. 61 milioiko aurrekontua duen lehen fase honetan, elizako sabaia, bobeda, kupula eta elizako lokalak konponduko dira.

J.M. Encio arkitektoak adierazi zuenez, bobeda 5 zmtako hormigoizko eta altzairuzko malla batekin inpermeabilizatu da, gaineko egurrezko egitura zaharra kendu eta metalezko zutabeak jarri dira eta gain-gainean, uralitazko sabaia eta teilak. 2.100 m²ko sabai berri honekin kanaloien arazoa konpondu da. Euria egiten duenean, ura sabaia dituen ildoetatik beheko sabaira joango da zuzenean eta hemendik ormetako tuboetara, itukinak eta kanaloietako mantenua gutxituz. Kupula gaineko egurrezko egitura gorde egin da, hala gomendatu zuelako Aldundiak. Izan ere, egitura



■ ■ Kanpandorrearen eta elizaren hormen egokitzepena aurrera egingo dute.

bitxia omen da eta gordetzeak merezi du. Sabaian teilak jartzea baino ez da falta eta laster ekingo diote elizako lokalen barrua hustutzeari. 300 m²ko hiru solairuk eta ganbarak osatzen dute eliz-lokala. Eliza barruaren garbiketa, margoketa eta argiztatzearekin bukatuko da lehen fasea.

Martxorako edota berandueneguz apirilera lanak bukatuta egotea espero dutela adierazi zuen J.M.

Enciok. Elizako obren batzordeak lanak aurrekontuaren barruan burutzen ari direla azaldu zuen. Eliztarrek 42 milioi eman dituzte, interesekin 53 milioi dira dagoeneko eta Udalak berriz, 10 milioi eman ditu. Bigarren fasean, lokalen egokitzapena, kanpandorrearen berritzea eta elizaren aurreko aldearen eta klausuroaren garbiketa, konponketa eta inpermeabilizazioa sartuko lirateke.

■ Hika taldeko ipuin kontalariak Liburutegian

Udal Liburutegia burutzen ari den irakurketa bultzatzeko kanpainaren barruan ipuin kontalarien saioa burutuko da datorren astelehenean, hilak 23. "Hika" taldeko kideak izango dira haurrak aho zabalik lagako dituztenak beraien kontakizunekin. Saioa arratsaldeko 5etan hasiko da Liburutegiko aretoan.

■ Ikastolaren jaialdia

San Bartolome Ikastolak urteroko jaialdia ospatuko du gaur, hilak 20. Saioan 1. mailatik 8. mailara bitarteko ikasleek prestatutako dantzak, antzerkiak eta bestelako ikuskizunak ikusteko aukera izango da. Hamaika saio ezberdinez osatutako jaialdia arratsaldeko 7etan hasiko da Olaizaga kiroldegian.

■ Eskualdeko Gorren Eskolako zozketa

Eskualdeko Gorren Eskolak antolatutako Gabonetako zozketan 1239 zenbakia izan da saritua. Zenbakiaren jabeak mendiko bizikleta ekipo osoa irabaziko du. Norbaitek zenbaki saritua balu Bergarako Gorren Eskolarekin harremanetan jar daiteke, 76 27 03 zenbakira deituta.

■ Eibarko ihauterietako kartel lehiaketa

Eibarko Udaleko Kutura Sailak 95ko Ihauterietako Kartela egiteko lehiaketa antolatu du. Gaia norberaren aukerakoa izango da, 70x50 zm-koa, euskarri gogorrean aurkeztua, eta "Aratosteak Eibarren. 1995." testua eraman beharko du. Lanak Eibarko Udaletxeko Kultura Sailean aurkeztu beharko dira hilaren 24ean berandueneguz. Epaia 25ean ezagutaraziko da. Irabazleak 60.000 ptako saria jasoko du eta epaimahaiak hala erabakiko balu, 15.000 ptako saria eman dezake aipamen berezi modura. Informazioa eskuratzeko Eibarko Udaletxeko Kultura Sailera zuzendu.

Jokin Martinez:

"Bizitza bera nahikoa antzerki da"

Jende gehienak elgoibartar hau egunkari saltzaile bezala ezagutzen du, baina beste zenbait alorretan ere mugitzen da. Alde batetik, Azpeitiko antzerki talde bateko partaide da.

Astronomia ere gustuko du eta makina bat ordu pasatzen ditu bere teleskopioarekin. Gaur egunean, 22 urte ditu eta hor dabil bere lanbide eta afizioak konpajinatu nahian.

- Nolatan antzerki zale-tasun hau?

- Beno, antzerkia eta zinea betidanik gustatu izan zaizkit, zinea batez ere. Ez da txikitatik izan dudana bokazio bat, baina gustatu, betidanik gustatu izan zait, eta aurten probatzea pentsatu dut, ea zer moduz irteten den.

- Nola sartu zinen antzerki talde batean?

- Elgoibarren antzerki munduan dabilzane-kin hitzegin nuen eta beraiek Azpeitiko antzerki amateur talde baten berri eman zidaten, talde honekin hitzegin ondoren bertan sartu nintzen.

- Zergatik Azpeitin eta ez Elgoibarren?

- Pasa den udaran erabaki nuen antzerkia egitea nahi nuela, eta lehenbaitlehen sartzea nahi nuen antzerki munduan. Elgoibarren, Eke-kei taldeak bere obra martxan zuen eta ez zen momentu egokia hor sartzeko. Horrela Azpeitin sartu nintzen, eta abenduan estreinatu genuen obra. Momentuz oso pozik gaude obrarekin, dexente jendeak ikusi du. Elgoibarren antzetzeko eskaintza izan dugu,



"OVNlrik ez dut ikusi, baina egunkariak saltzen, igande goizaldera extraterrestre itxurakoak ikusi izan ditut".

eta espero dugu laster hemen izatea.

- Ez al da beranduegi?

- Antzerki mundu honetan goiz hastea gomendatzen da, baina beno, oraindik gaztea naiz eta antzerki mundua ikusteko nahikoa denbora dudala iruditzen zait.

- Nola ikusten duzu antzerki mundua?

- Jendeak oso antzerki gutxi ikusten du, ez dago ohitua antzerkira joatera, eta antzerki proiektu bat aurrera era-

matea zaila da. Antolamendu falta dago, antzerki gehiago eman beharko litzateke, herri gehiagotan,... eta ez urtean bost aldiz eta kitto.

- Ez al da bizitza nahikoa antzerki?

- Bai, egia da bizitza nahikoa antzerkia dela, baina antzerki munduan, nahi duzun bizitza molda dezakezu, bizitza beste ikuspuntu batetik ikusten duzu.

- Astronomian ere afizio handia omen duzu.

- Beno, ni gauza konkretuak ikustera joaten naiz, unibertsoa aztertzeraz, gero astronomiako liburuekin konpajinatzeko.

- Ovinirik ikusi duzu inoiz?

- Ez, ikusi ez, baina sinetsi bai. Gu hemen baldin bagaude, zergatik ez han beste batzuk? Extraterrestreak bai, ikusi ditut, baina hemen, egunkaria saltzean igande goizaldera batez ere.

- Egunkariak saltzea nahiko gogorra izango da, ez? Neguan gehiago?

- Beno, ohitzea da, hotzaren kontra erropak jantzi eta kitto. Jendeak dio gogorra dela, baina ongi jantziz gero ez da hain gogorra. Goizeko ordu horietan hobeto egoten da etxean ohean, baina...

- Konpajina al dezakezu guztia?

- Bai. Orain momentuz ikasketak alde batera utzi behar izan ditut, baina posible da konpajinatzea. Egun batzutan lo gutxi egitea tokatzen zait, baina beno, konpontzen naiz.

JOSEBA GOROSABEL

Zcj ct tcm BERRI

3. ADINARI ZUZENDUTAKO 9. GEHIGARRIA



San Lazaro Egoitzak Nagusiei Eskeinitako Astea antolatu zuen hilaren 2an hasi eta 9a bitartean. Ospakizun berezi honetarako hainbat eta hainbat ekintza burutu zituzten eta herriko talde ezberdinek ere parte hartu zuten, hala nola, Inazio Bereziartua Musikeskolak, "Plaentxi" bikoteak, Udal Txistulari Bandak, Haritz Dantzari Taldeak, Musika Bandak edota Parrokiako Abesbatzak.

Dantzaldia, bazkari berezia, bingoa eta, argazkian ikus daitekeenez, txokolatadarik ere izan zuten. Horrezaz gain, tonbola berezia izan zuten, egoitzakoek ezezik kaletarrek ere parte har zezaketelarik, jasotako dirua hirugarren mundura bidali asmoz. Elgoibartarrok ondo baino hobeto dakigu urteari jai giroan ematen hasera. Aipatu asteaz gain, pasa berri ditugun San Anton jaiak ditugu adibiderik garbienak.

MOTZAK MOTZAK MOTZAK

Literatur Lehiaketa

Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako Jubilatuen Lurralde Elkarteak III. Literatur Lehiaketa antolatu du. Poesia, ipuina eta saiakera arloak daude eta lanak aurkezteko epea maiatzaren 15a eta 30a bitartean izango da. Poesiari dagokionean gehienez 60 bertso izango dira, ipuinak 8 orrialde eta saiakerak 20. Poesiak eta ipuinak gai librea badute ere, saiakera "Zahartzaroak dakartzan arazoak" gaiaren bueltan behar da izan. Euskaraz zein gaz-

teleraz idatziak bidal daitezke Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsionisten Elkartera, Santa Katalina 3, posta kutxa 2004 Donostia.

Zaharren biltokiko Zozketa

Zaharren Biltokian Gabonetan egin zuten zozketan sarituak izan ziren zenbaki batzuren jabeak ez dira oraindik agertu. Saria turroiz, edariz eta bestelako jakiz osaturiko boltsa da. Hona hemen zenbaki sarituak: 2690, 656, 584, 910, 697, 1464 eta 1365.

Egonaldiak bainuetxeetan

Diputazioak urtero antolatzen ditu egonaldiak bainuetxeetan. Aurten, urtarrilaren 23an hasten da eskaerak aurkezteko epea eta horretarako 900 43 43 telefono zenbakira deitu behar da. Bestalde, Inersok ere badu bainuetxeen programa bat. Dagoeneko joan daiteke izena ematera bai Udaletxeko Ongizate sailera bai eta Eibarko Pentsionisten Egoitzara ere.

Zaharrak BERRI • 1995-I-20 • 9. gehigarria

NIKOLAS EGURROLA ETA MODESTA JAUREGI:

"36an, tropak iristean eman genion elkarri lehen musua"

1936 urte aldera zen. Garai hartan Bergarako jaiak ziren eta Modesta Jauregi, berarekin batera josten ikasten zegoen beste neska batekin bertara joan zen, festara. Erromeria zegoen, nola ez, eta halako batean hara non hurbiltzen zaion mutil prestu bat dantza eskean, bere izena Nicolas Egurrola zen, jaiotzez gernikarra baina Elgoibarrera lanera etorria zena. Gau hartan Modesta Nikolasekin bueltatu zen etxera. 1.939an ezkondu ziren, 55 urte bete berri dituzte elkarrekin. Ez da gutxi! Hona hemen Modestak kontatu dizkigunak.



— “
E ztei bidaiari trenez
joan ginen Donostiara,
Gasteizera eta Burgosera

— ”
- Bai. Behin
osaba batek galdetu zidan ea zer nola-
ko harremana zegoen nire eta
Nicolasen artean, ea sendoa zen edo...
Nik ezetz esan nion, baina ez zen egia.
Ordurako asko maite nuen eta nere
barnean beldur nintzen, gerratearen
ondorioz berriro ez ote nuen ikusiko.
Hala izan balitz, moja edo sartzea
pentsatua neukan.

- Gerra tartean nola moldatzen zireneten?

- Maitasunezko eskutitzak idazten genituen, astero astero. Denak iristen ziren, soldadu zeudenek gainera seilurik jarri gabe bidal zitzaizkaten, abantaila hori behintzat bazuten. Eskutitz asko izan ziren baina ezkondu eta gero denak erre nituen, lagun batek esan zidanez ez baitzen batera ona horrelako gauzak gordetzea.

- Ezagutu eta maitemintzea bat izan ziren, beraz.

- Gogoratzen al duzue lehen musua?

- Bai, noski baietz!
Tropak Elgoibarrera iritsi ziren eta jendea portaletara sartzen hasi zen, beldurrez edo. Gu kanpoan geratu ginen eta nik musu bat eman nion Nicolasi, badaezbada, igual ez nuen gehiago ikusiko eta.

- 1939an gerra amaitu eta ezkondu zirenten.

- Bai, abenduaren 1ean. Gerra osteko garaia

zen, garai txarra. Ez zegoen etxerik eta guri, zorionez, Francisca Unzuetak buhardilla txiki bat utzi zigun.

- Izan al zenuten ezta bidaiarik?

- Bai, ostegunetik igandera. Trenez joan ginen, Donostiara, Burgosera eta Gasteizera. Zilarrezko eztaiak egin genituenean Santanderrera joan ginen eta Urrezkoak ospatu genituenean, berriz, Tenerifera eta Gran Canariara. Canariasera alaba eta suhinarekin joan ginen, eurek zilarrezko eztaiak betetzen zituzten eta. Iritsi ginenean, hotelko logelari, txanpain botila bana geneukan. Hura bai detailea!

- Bidaiak egin dituzue, beraz.

- Ahal izan duguna behintzat. Batez ere Nicolas jubilatu zenean hasi ginen hara hona joaten. Ordura arte beti lana egin behar baitzuen eta ez geneukan denborarik guretzat. Halere, ondo aprobetxatu dugu, ikustea nahi genuen guztia ezagutu dugu.

- Nicolas, zer erakutsi dizu Modestak?

- Gauza asko, batez ere pazientzia izaten, pazientzia handiko emakumea da.

- Eta zuk Modesta, zer ikasi duzu Nicolasengandik?

- Gauza batek atentzioa deitu zidan haseratik, asko fijasen zen. Zerbait berria baneukan, adibidez, arropak edo bestelakoak, beti egiten zidan komentarioa.

- Zerbait aldatzekotan?

- Gerra kenduko genuke baina beste guztia berdina utziz, zoriontsuak izan gara.



Aurkeztu dira 1995erako oporraldi eta zirkuito kulturalak

Gaur egungo jubilatuen irudiak ez dauka zerikusirik orain urte batzuek izan zezaketenarekin. Hainbat eta hainbat ekintza dituzte aukeran parte hartu nahi badute, ikastaroak, egonaldiak bainuetxeetan eta, nola ez, baita irteera eta oporraldiak ere. Aurten bederatzigarren urtea da INSERSOK oporraldi programa antolatzen duena. Helburua: jubila-tuentzako osasuna, kultura eta hez-kuntza, bai eta ekonomikoki onura-garria den plangintza ere.



Aurtengo Zirkuito Kulturean Euskal Herria ere sartzen da.

Ekonomikoki abantailak ditu, negu partean ere turismoa bultzatzen duen programa delako. Aurten, 360.000 plaza eskaintzen dira. Kontuan izanik 1985ean, programa lehen aldiz egin zenean, 16.000 plaza zeudela, argi dago urterik urte aipatu programaren arrakasta igotzen joan dela eta eskaintzen diren guneak ere gehitzen, Kanariar irlak, adibidez. Parte hartzen duten hotelen kopurua ere gehitu egin da, bederatzi urtetan 19 izatetik 183ra, edota salmenta agentziak, 20tik 2.000 izatera, hain zuzen ere.

Bidaia guztietatik Costa de Sol omen da eskaerarik ugariena jasotzen duena, izan ere, zonalderik eguzkitsuena baita: Torremolinos, Marbella, Malaga... Hauekin batera, nola ez, Benidorm, klima epela ezezik, baita giro ezinhobea nuelako.

Zirkuitu kulturalak

Herri konkretuetan ematen

diren egonaldiak ezezik, herriz herri doan zirkuitu kulturala ere antolatzen da. Bigarren aldia da zirkuitu kulturalak antolatzen direna eta aurten Euskadi eta Galizia ere sartzen dira. 1994an 7.000 pertsonak hartu zuten parte aipatu zirkuituetan. Ibilbideak zortzi elkarre autonomotan banatuak daude.

Euskal Herrirako 300 plaza eskaini dira eta ibilbidea Madril inguruan izango omen da. Alojamentuari dagokionean, hiru izarretako hotelak izango dira, pentsio osoko egonaldiak izanik. Sei egun irauten dute zirkuituek, bi egun bidaiarentzat eta gainontzeko laurak Madril inguruko herri, hiri, museo eta bestelakoetara txangoak zein bisitak egiteko.

1995a ere, urte aproposa antzematen da gure nagusiek etxetik irten eta giro jatorrean leku ezberdinak ikus ditzaten.



Pentsio igoera

1995ean pentsioak %3,5 igoko dira, urtean zehar gainontzeko prezioek izango duten igoeraren parekoa, hain zuzen ere.

Halere, zenbait gauza argi utzi behar zaie 1994 urtea baino lehenagotik pentsionista ziren guztiei:

1993an %4,4 igo ziren pentsioak eta hortik irten zen emaitzari gehitu behar zaio aurtengo igoera, %3,5, hain zuzen, ez 1994. urtean zehar hileroko jaso den zenbatekoari.

1994an jasotako diru kopurua eta urte horretan pentsioak %3,5 beharrean %4,4 igoz gero jaso beharko litzatekeen kopuruaren arteko diferentzia, ordainketa bakar batean egingo zaie pentsionistei, hala adierazten zaizen eskutitza jasoko dute-

larik.

1995. urtean zehar Gizarte Asegurantzaren edo Seguritate Sozialak 7 milioi pentsio ordainduko ditu. Horretarako aurrekontu orokorretik %58,6 zuzenduko da, 6,3 bilioi baino gehiago. 1994.akin konparatzen badugu, aurten 512.000 milioi gehiago eskainiko zaie pentsioei.

Jaso daitekeen pentsiorik altuena 265.322 ptakoa izango da hileroko, urtero 14 paga.

1994an, Gipuzkoan 126.824 pentsio eman ziren, hileroko 9.163.187.960 ptako gastua suposatzen zutenak. Adibide bezala, autonomo errejimeneko jubilatuek 60.506 pta jasotzen zuten batzuetan beste, eta orokorrak 105.272 ptakoak ziren.

1995 URTEKO PENSIO KONTRIBUTIBO MINIMOAK

PENSIO EREDUA

	Bikotearekin /Hileko	Bikoterik gabe /Hileko
■ JUBILAZIOA:		
65 urtekin	60.220	51.180
65 urtetik behera	52.700	44.670

■ EZINTASUN IRAUNKORRA:

Osoa	90.330	76.770
Absolutua	60.220	51.180
Totala: 65 urterekin	60.220	51.180
Partziala		
Lan istripuaren ondorioz: 65 urterekin	60.220	51.180

■ ALARGUNTASUNA:

65 urterekin	51.180
60/64 urte bitartean	44.670
60 urtetik behera	34.075

■ FAMILIA LAGUNTZAK

Ez badago alargunik ez eta umezurtz pentsiodunik:

65 urterekin	38.995
65 urtetik behera	34.075
Behin behineko ezintasuna eta gaisotasun luzea	44.375
	37.980

■ SOVI PENSIOA:

Zahartzaroa, ezintasuna eta alarguntasuna	36.590	36.590
---	--------	--------

1995 URTEKO PENSIO EZ KONTRIBUTIBO MINIMOAK

■ JUBILAZIOA ETA EZINTASUNA

	Urteko zenbatekoa	Hileroko zenbatekoa
Onuradun bakarra	476.980	34.070
Bi onuradun	810.866	57.919



MARI KARMEN BIZKARRONDO

Zigalak saltsan

OSAGIAK

Olioa, berakatza, tipula, piper berdea, piper gorria, txorizo sasa, urdaia eta kilo bat zigala.

PRESTAKETA

Berakatza, tipula, piper berdea, piper gorria, txorizoa eta urdaia txiki txiki egin eta oliotara botatzen dira, bertan poliki poliki erre daitezten. Bitartean, zigalei burua kendu eta oso ondo garbitu behar dira ondoren aurrez prestatzen hasi garen osagaiekin batera nahasteko oliotan. Gatza ere gehitu behar zaio, noski. Beste ontzi batean tomatea egin behar da, zigala kilo bakoitzeko libra t'erdi tomate gutxi gora behera. Ondo egosi eta pasadoretik pasa eta gero, zigalen gainera bota eta bertan dena nahastu behar da piper piska bat botaz, bizitzeko. Berehala egiten da eta buzinezko ontzi batzutan jarritz, prest dago ardo zuri batekin eta baserriko ogi ederrarekin jateko.

Miguel Fernandez

Arotza



● **Zein altzari izan nahi zenuke?**

▶ Hainbeste daude! Arropa gordetzeko armairu bat edo.

● **Mundua ohe bat balitz, zein lekutan egin nahi zenuke lo?**

▶ Euskal Herrian bertan, gustura nago eta asko gustatzen zait.

● **Nor entzerratuko zenuke armairu batean?** ▶ Inor ere ez.

● **Nori oparituko zenioke logela bat? Zerez eginikoa?**

▶ Nire alabari, intxaurren edo sapeliz eginikoa.

● **Gizartea pitzatua dagoela uste al duzu?** ▶ Bai, arazo asko dago.

● **Zein altzari aurkeztuko zenuke erakusketa erotikoa batean?**

▶ Liburu erotikoz beteriko liburutegi bat, beharbada.

● **Zure bizitzako zein mementu gordeko zenuke kutxa batean?**

▶ Nire ezkontza, oroigarri polita da.

● **Ba al dago gaur egun Pinotxoren erreinkarnaziorik?**

▶ Bai, gezurti asko dago, gauza arrunta da.

● **Zein eskultura egingo zenuke Elgoibarko Plaza Haundian jartzeko?** ▶ Ez dakit ba, nire nagusia den Ulaziaren irudia, agian.

● **Ateren bat irekia aurkituz gero, noren elkarrizketa entzun nahi zenuke?**

▶ Inorena ez. Ez nuke elkarrizketarik entzungo izkutuan.

● **Zein lehiaketara aurkeztuko zinateke?** ▶ Zatarren lehiaketa batera!

● **Sekula egingo ez zenukeena?** ▶ Sekula ez nuke gaizki utziko jendea.

● **Osasuna, dirua ala maitasuna?** ▶ Osasuna.

● **Zerk ematen dizu inbidia?** ▶ Pakeak.

● **Egingo al zinateke zulo bat belarrin?**

▶ Ez, badauzkat semeak etxean belarritakoekin baina niretzat ez zait gustatzen.

● **Nork egiten du zure ohea?** ▶ Emazteak normalean.

● **Nolakoa izango da munduaren bukaera?**

▶ Ez dut uste mundua bukatuko denik. Beno, niretzat, begiak isten ditudanean bukatuko da.

● **Amets bat?** ▶ Nire seme-alaben bizitza bideratua ikustea.

● **Zer esango zenioke emazteari?**

▶ Bera bezalakorik ez dagoela.

ARTISAU FERIA

DOINUA:

Aizak mutil mainontzi

Pasatu dan igandian
hemengo Plaza Haundian
pilo bat jende bildu ginaden
artisau ferian
Euren lanak agerian
benetan bitxiak zian
hainbeste artisau batera ikusi
momentu berian (BIS)

Zegoen artisau pila
zerbait saltzearen bila
itsasontziak, koadroak, telak...
Ai ze marabila!
Zumezko otarre ta sila
kaxak egiten mutila
gauza horiek denak egiteko
izan behar abila (BIS)

Hauxe da amaiera
izan zan ikusgarria
ea posible hurrengo urtean
errepikatzia
zegoen maila ikusia
ederra ekitaldia
artista askon topagunea
artisau feria. (BIS)



JON GARATE

OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● 📞 ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

ITURGINTZA

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

VIVI

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

San Antonetan gustu guztietarako ekintzak egon dira

Hilaren 17a, San Anton eguna, asteartean izan da aurten. Hori dela eta, joan den astebukaera osoan, hasi ostirala eta asteartea bitartean, hainbat ekintza izan ziren herriko San Anton jaiak ospatzeko. Gustura hartzen dira jai egunak urteari hasera ona emateko eta hala ikusi zen, ekintza ezberdinak antolatu ziren eta jendearen partehartzea nahikoa zabala izan zela esan daiteke.

Zapatuan hasi zirela esan daiteke, nolabait. Egun horretan izan ziren ekintza ezberdinen artean eguerdiko 12etan inauguratu zen XV. seilu erakusketa azpimarra daiteke. Aurtengoan, Filatelia Elkartek Musika Bandaren 110. urteurrena denez, Bandaren irudia duen mataseilu berezia eskuratu du haren omenez. Inaugurazio ekitaldiari hasera emateko, Musika Bandak kalejira egin zuen Plaza Haundian hasi eta Kultur Etxera bitartean. Erakusgelan hainbat pertsona bildu zen, horien artean Filatelia Elkarteko Benito Atrio eta Jose Mari Etxaniz, Gillermo Garate Kultura zinegotzia eta ESEBA Filatelia Federazioa. Ekitaldian oraigarriak banatu zitzaizkien Bandakideei bai eta kolekzionistei ere.



■ ■ Gustu guztietarako ekintzak izan ziren, bai hau, gazte bai eta helduentzat ere. Goian, BAP taldearen kontzertua eta behean seilu erakusketaren inaugurazioko irudi bat.

Santa Klarako aldareko erretabloa

■ 1609an bigarren komentua eraikitzen hasi zirenetik, etengabe egin ziren obrak Santa Klara monastegian. Elizan bertan 1724tik 1727ra bitartean obra haundiak egin ziren honen ondoren, beraz, aldareak nabarmentzea besterik ez zen falta.

■ 1753ko irailaren 9an, aldare nagusiko erretabloa eraikitzeko konpromezua idatzi egin zen Sor Josefa Antonia San Frantzisko eta Oteiza abatesa zela.

■ Juan Bautista Jauregi izan zen erretablo egilea baina ez dakigu nor izan zen diseinatzailea. Juan Bautistak 1754ko irailaren 29rako amaizeko konpromezua hartu zuen. Halere, erretabloa ez zen bukatutzat eman 1755eko maiatzaren 6ra arte erretabloa jarri behar zen absidearen arku konpontzen denbora asko egin baitzen.

■ Kostoari aurre egiteko abatesak Nicolas Zacarias Zarateren heredentziatik 16.414 erreale eta 4 marabedi jaso zituen. 6216 erreale 1754ko irailaren 22rako gastatu ziren erretabloaren zati baten,

garraioan eta eskrituretan. Gainontzekoa depositoa gorde zen elizako beste hainbat premitarako. 1763an Retana abizena zuen mendarotar batek 8.980 erreale eman zituen eta diru horrekin aldareko gastuak ordaindu zituzten.

■ Jauregi arkitektuak eta mojek kontratua sinatu zutenean 8200 ptatan zehaztu zuten erretabloaren lana, materialea eta garraioa. Horrez gain, presbiterioko bi harmaila jeistea, harlauzak jartzea, aldareko mahaia ipintzea, pilastrak zuen harrizko erlaiza moztea eta frontisaren matxoiko kiribilduen eta zutabeen arteko aingeruak komunitatearen kontura izatea zehaztu zen.

■ Arkitektuak 8.500 erreale kobratu zituen azkenean. Honen arrazoia Frantzisko Ibero azkoitiar peritoak azaldu zigun, "erretabloan egindako hobekuntza batzuegatik..." eta "erretabloa ipini behar zen tokiko arku konpontzen luzatzeagatik".

■ 8.550 erreale horiei beste 7.400 erreale gehitu behar izan zitzaizkion erretabloa urreztatu ahal izateko.



Agustín Garagarza S. Migel auzoko bentakoa (1876-1969)




- San Migel auzoko Belaustegi baserrian jaio zen 1876. urtean.
- Eibarren egiten zuen lan, Sarasketa fabrika eskopetak egiten.
- Pertsona ezaguna zen, San Migel auzoko bentaren kargua baitzeukan.
- Bentatik pasatzen ziren Markinara eta Bizkaia aldera abiatzen ziren bidaiariak.
- Gerra garaian frontetik ekarritako zaurituak bentara eramaten zituzten, handik ospitalera jeisteko.
- Hiru seme-alaba izan zituen baina benta saldu egin zuenez, batek ere ez zuen bentarekin jarraitu.
- Ehiza oso gogoko zuen. Zaletu amorratua zen, oilagorrak ehizatzen batez ere. Txoriak harrapatzeaz gain, ehiza txakurrak ere hazten zituen.
- Elgoibarren hil zen 1969. urtean 83 urte zituelarik.

XABIER

ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97



TXiRiBoGa

Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK

ETA OTARTEKOAK

Plaza merkatua 23-24

☎ 74 18 24

MOTZAK

Elgoibarko I. Bolo Txapelketaren 3. tiraldia

Larunbat honetan, hilak 21, gaueko 9etatik aurrera Elgoibarko I. Bolo Txapelketako hirugarren tiraldia jokatu da San Rokeko bolatokian. Lehen tiraldia joan den hilean San Lorentzoko bolatokian izan zen eta bigarrena joan den larunbatean San Migelen. Hurrengo eta azken saioa San Pedron izango da otsailaren 11n.

Squash, ping-pong eta pala txapelketa

Otsailetik Aste Santura bitartean, squash, ping-pong eta pala txapelketak jokatu dira egunero, arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean eta larunbat goizetan Kirolegeiak antolatuta. Lehen biak banaka jokatu dira eta pala, berriz, binaka. Izena emateko 74 13 61 zenbakira deitu hilaren 27an beranduenez.

Argazki rally-aren sari banaketa

Gabonetako Kuadrila Arteko Txapelketako Argazki Rally-aren irabazlea Javi Leon izan da, "Merkealdiak al dira?" argazkiarekin. Bigarren saria Ainhoa Lodosok jasoko du "Baietz sartu" argazkia ateratzeagatik. Hirugarren sailkatua V. Guinea izan da eta berak ateratako erretratua "Acción" izenburukoa da. Sari banaketa ekitaldia larunbatean, hilak 21, izango da eguerdiko 12etan. Epaimahaia Txankakua Elkarteko A. Arrillagak, R. Mujika Kirol Teknikariak eta Ongarriko J.M. Sarasuak osatu zuten.



Jose Luis Oria:

"Atleta oso jatorrak entrenatu izan ditut"

■ **Atletismoko entrenatzailea izandakoa zara.** - Bai, orain 11 bat urte utzi nuen. Ni korrikalaria nintzen, belozista. Ego-Toki sortu eta urte batzuetara entrenatzaile izatea proposatu zidaten. Zazpi urte eman nituen entrenatzaile moduan.

■ **Zenbat gazte entrenatu dituzu?** - 20 bat. Gure garaian neskaren bat kenduta, korrikalari gehienak mutilak ginen. Entrenatzen hasi nintzenean neskak ere anima-tzen ziren baina neguan erraz laga-tzen zuten. Jendea kudrilan eto-rtzen zen, lagun arteko gauza bezala.

■ **Zein baliabide zenuten?** - Eskasak. *Lagun* ingurua, *Lerun* eta neguan pista beltza. Azken hau pistarik errazena zen.

■ **Zein zen zure lana?** -Astean hiru aldiz entrenatu eta astebukarren kotxea hartu, nerea edo elkartekoren batena, eta korrikalariak lasterketara eraman. Gogorra zen, igande goizean irten eta arratsaldean bueltatu, eta beti horrela. Arazoa dirurik eza da.

■ **Zein errekurtsu zenituzten?** - Gutxi. Klubak kamisetak edo zapatilak erosten zituen baina gainontzean gogo handia.

■ **"Gaiztoaren papera" betzea ere tokatuko zitzaizun.** - Bai, baina orokorrean nahiko formalak ziren. Oso ondo ezagutzen nindute-



nez, desmadra-tzen zirenean aurpegi txarra jartzearekin nahikoa izaten zen. Gainontzean gogoan dut lasterketa batera joan eta neska-mutilen batek erori eta istripua izatea... osasun azterketa guztiei egiten zitzairen.

■ **"Talentuak" ere pasako ziren zure eskuetatik.** - Bai. Muguruza adibidez, hilabete eta terdi entrenatu gabe egon eta gero Gipuzkoako txapeldun izan zen. Lan egin izan balu urrutira heldu ahal izango zatekeen. Real Sociedad elkartean ere urtebetez egon zen baina... Gai-nontzean borondate handikoak izan ditut.

■ **Nola ikusten duzu atletismoaren etorkizuna?** - Ego-Tokiren errelebua hartu dutenak finak dira. Baina korrikalari bat ona ateratzen denean klub handiek hartzen dituzte, Eibarkoak zein Real Sociedad taldeak. Honen arriskua da lanean dagoen jendea nazkatu egiten dela.

■ **Korritzea ala entrenatzea nahiago?** - Korrika egitean nork bere buruari exijitu behar dio baina entrenamenduetan... Hala ere, oso mutiko jatorrak izan ditut.

- Adina: 47
- Krosa irabazteko faboritua? Zomotzan irabazi duen portugesa edo afrikarren bat.
- Miresten duzun korrikalari bat? Nire garaiko Mariano Haro.

Salvador Celaya
ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK

Errosario 22. Tel: 74 04 94

TIRO RIRO

San Fermín, 5. 74 13 86

PUBLIZITATEA
74 41 12

Gelaxorrota baserriko Patxi Arriola eta bere aginduetara izan zuen "Dalo" izeneko ehiza txakurra irabazle geratu ziren joan den astebukaeran Noian, Galizian izandako Espainiako IV. Oilagorren Txapelketan. Berrogeita bi ehiztarik parte hartu zuten, eta denen artean bost oilagorra baino ez zituzten ehizatu. Sasoi hau ez omen da oilagorrek ehizatzeke onena.

Espainiako Federazioak antolatutako Oilagorren Espainiako IV. edizio honek badu txapel-dun berria: Patxi Arriola elgoibartarra. Goizeko 9etatik 2ak arte luzatu zen txapelketa baina kontrola 1,30etatik 2etara bitartera jarri zen. San Lorentzo auzoko gazte hau eta setter ingeles arrazako "Dalo" txakurra Espainiako Txapel-dun izateaz gain, 94-95 denboraldiko Gipuzkoako eta Euskadiko txapel-dun ere badira. Aurtengo lorpen huez gain, beste denboraldi batzuetan ere txapelketa mordo irabazi dute, oilagorretan ezezik, beste ehiza mota batzuetan ere bai, "caza menor" deitzen den horretan, esaterako.

Oilagor gutxi

Patxiren ustez beranduegi izaten da Oilagorren txapelketa. "Oilagorrek harrapatzeke sasoi lehentxoago da, oilagorra paseko txoria da, eta Europako ipar aldetik negua pasatze- ra etortzen direnez, orain bakar batzuk geratzen dira".

Ehizaketa zaila

Oilagorra, jateko hain estimatua

dena, oso zaila omen da harrapatzeke. Zorte handia behar izaten da. Oilagorra oso bakartia eta berezia da, edozein susmoren aurrean erraz egiten duena ihes. Horregatik txakur- rrek oso usaimen fina izatea funtsezkoa da. Hortan datza asko ala gutxi ehizatzea. Asko ehizatzeke beste baldintza bat txakurra eta jabearen arteko erabateko konpen- trazioa da. Patxik txintxarria jartzen dio "Dalo"ri lepoan eta egiten duen zaratari esker jarraitzen dio Patxik txakurrari. "Dalo" k txoria usaintzen duenean geratu egiten da. Txintxarriak hotsik ez ateratzean piezaren bat antzeman duela jakiten du Patxik.

Pedigree

Espainiako Txapelketa irabazte- ak ate berriak zabalduko dizkio Patxiri. Datorren ostiralean, hilak 27, TVE 2ko "Jara y sedal" programan



■ ■ **Bien arteko entendimendua erabatekoa da.**

txapelketari buruzko monografikoan ordu erdiko erreportaia dedikatuko diote. Horrez gain, sponsorra lortze- ko aukerak ere gehitu egiten dira. "Normalean sponsorizazioa lortze- ko aukerak etortzen dira horrelako txapelketa inportante bat irabaztean, kartutxo klase bat erabiltzeagatik, eskopeta marka batekin tiratzeaga- tik... Txakurraren balioa ere asko igotzen da. "Dalo" k pedigree ona dauka, kruzerako inportantea dena. Txapelketak irabazterakoan balioa haunditu egiten da."

AGENDA

FUTBOLA Mintxetan **Larunbata 21**

10,00: Urki - Gazteak (Jubenilak)
12,00: Urki - Aloñamendi (Jubenilak)
16,30: Elgoibar - Urola (Jubenilak)

Igandea 22

12,00: Eibar Urko - Tolosa (Jubenilak)

ESKUBALOIA Kiroldegian **Larunbata 21**

16,30: Elgoibar - Bidebieta (Kadete mutilak)
17,30: Elgoibar - Usurbil (Senior neskak)

FUTBITOA Urasandin **Igandea 22**

10,00: B. Duro - R. Mundo Tropiko - H. Verboten
11,00: Gruas Pana - Fotero Lucky Luke - U. Chile
12,00: Karkis - Mimox Pedruskos - Sporting

EMAITZAK

FUTBOLA Mondra 1 - Haundi 0
 Segura 1 - Elgoibar 1 (2. errejionala)
 Mondra 1 - Elgoibar 0 (Jubenilak)
 Elgoibar 2 - S. D. Eibar 2 (Infantilak)
 Elgoibar 4 - Mutriku 1 (Kadeteak)

XAKEA

3. maila: Elgoibar 2 - Arrasate 2
 2. maila: Elgoibar 3 - Mutriku 1

ESKUBALOIA

Pagoaga Elgoibar 22 - Ordizia 4 (Kadete neskek)
 Urola 11 - Elgoibar 32 (Kadete mutilak)
 Bizkor 22 - Elgoibar 34 (Jubenil mutilak)
 Durango 12 - Elgoibar 13 (Senior neskek)
 Txankakua Elgoibar 18 - Leizaran 19 (Senior mutilak)

FUTBITOA

Oraiko 6 - S. Roketarra1 Kosakos 1 - G. Garcia 2
 Dream Team 3 - Rua 0 King-Kong 9 - Replastisa 2
 Aldavas 2 - La Maxia 3 D. Kalimotxo 3 - Haritza 3

Kloroa erabiliko da Kiroldegiko ura garbitzeko

Duela hamabost bat egunetik Olaizaga kiroldegiko igerilekuan kloro depurazio sistema martxan dago. Lehenago sistema elektrofisikoaren bidez depuratzen zuen ura, baina kloroa eraginkorragoa dela frogatua dagoenez, berau erabiltzea erabaki du Udalak.

Orain dela 8 bat urte, Kiroldegia eraiki zenean, Aldundiak sistema elektrofisikoa bultzatu zuen igerilekuetan ura depuratzeko. Kobrea eta zilarra erabiltzen du sistema honek baina filtroak beste sistema batzuetakoak bezalakoak dira. Uraren kalitatearen kontrola eramateko, hamabostero, analisiak egiten dira. Sistema elektrofisikoarekin Kiroldegiko urak ez zuen nahi bezalako emaitza ematen zenbait analisitan. Azken legisla-

zioarekin Udaletxeko Kirol Zerbitzua martxan jarri zenean, uraren gai honekin zerbait egitea erabaki zen. Faktore erresidualen atalean igerilekuko urak ez zuen eskatutako maila ematen. Dena den, azken urteotan emaitza hauek hobetuz joan dira baina duela urtebete edo, Osakidetzak hala gomendatu zuenez, Udal Kirol Zerbitzuak sistema aldatzea erabaki zuen, elektrofisikoaren ordeztu, kloroa jarritz. Enpresa ezberdinen eskaintzak alderatu ondoren, orain dela 15 bat egun



■ ■ Urak behar duen kloroa neurtzeko sensore batzuk daude.


bukatu zen instalazioa.

Udalak 2,5 milioiko inbertsioa egin du sistema berri hau jartzeko. Baso bakoitzean bi dosifikatzaile berri jarri dira, bat kloroarentzat eta bestea PHa jeisteko azidoarentzat. Sensore batzuek uraren azterketa

egiten dute eta horren arabera beharrezkoa den kloro eta PH kantitatea botatzen dira, dosifikazioa automatikoki egiten delarik. Sistema honekin, aurrekoarekin bezala, igerilekuko 410 m³ ak lau orduan depuratu eta garbitzen dira.

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"

Edari Banatzailea



GURELESA



SANTA ANA 41. ☎ 74 10 41 - 74 11 32

Inoiz baino jende gehiagok hartu du parte "Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketetan"

Joan den asteazken arratsaldean izan zen "Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketen" sari banaketa ekitaldia. Espektaziorik ez zen falta izan irabazleen izenak ezagutzeko orduan. Bitan banatu zen saioaren erdian, "Baskervilleko mamua" izeneko lana antzeztu zuen "Bihar" txotxongilo taldeak.

370 lagunek bidalitako lanak jaso dira 1994ko Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketetan. Bi atalez edo azpilehiaketaz osatua dago: bata "Etxegiña bertso-paper lehiaketa" eta "Prosa lehiaketa" bestea. Aipatutako atal bakoitza hiru maila edo kategoriaz osatua dago: A, B, eta C kategoriak, maila bakoitzean lehen bi sailkatuak saritzen direlarik. Bertsoen atalean 124 lan aurkeztu dira guztira eta prosan, berriz, 246 lan. Aurkeztutako bertsoak OHOKo 5. mailatik UBIRA bitarteko ikasleek idatzitakoak dira eta prosako idazlanak OHOKo 7. mailatik UBIRA bitartera. Bertsoen atalean German Meabasterretxeak eta Izaskun Elizburuk osatu dute epaimahaia eta prosa lehiaketan Asier Etxanizek eta Jasone Osorok.



■ ■ Hona hemen Idaz Lehiaketetan sariren bat jaso dutenak.

BERTSO PAPER LEHIAKETA

A maila (OHOKo 5. eta 6. mailak):

- 1- Sare Gurrutxaga
"Mendien edertasuna"
- 2- Aitor Gisasola
"Maitemindurik nago"

B maila (OHOKo 7. eta 8. mailak):

- 1- Kepa Mendikute
"Hau da hau mundua!"
- 2- Unai Arrieta "Denbora"

C maila (Ertainak 14-18 urte):

- 1- Irati Agirreazaldegia
"Ruandan ere izango dira gazteak"
- 2- Sagar Etxaniz "Ruandan ere izango dira gazteak"

IX. PROSA LEHIAKETA

A maila (OHOKo 7. eta 8. mailak):

- 1- Jone Olaizola "Sekretuak"
- 2- Laura Sanchez "Botilako gutuna eta udaberri andrea"

B maila (Ertainak 1. eta 2. mailak):

- 1- Ane Guilló "Eztei bezpera"
- 2- Ibai Gurrutxaga "Jesus, Maria eta Jose"

C maila (Ertainak 3. eta 4. mailak):

- 1- Luzia Zubiaurre
"Esne berriketan"
- 2- Luzia Zubiaurre "Ahur bete biharamun" eta Ane Ulazia
"Suminaren espaloietan idatzitako egunkaririk nigartiena"



Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek joan den larunbatean antolatutako Bertso Jarrien Kantaldiak arrakasta nabarmena izan zuen antolakuntza zein ikuslego aldetik. San Anton jaien epeletan herritik ezezik kanpotik ere, bertsozale mordoia urreratu zen Herriko Antzokira. Saio polita atera zen, Euzkitze eta Mendizabal bertsozaleek aurrez idatzitako bertsoak ezezik, bapatekoak ere kantatu zituzten bukaeran. Alberto Iriondo elgoibartarra pianoa jotzeaz arduratu zen eta Haritzekoek tonua eman zioten saioari euskal dantzekin.

Lehiaketak

Bergarako Jardun elkarteak **III. BERRIGARA AMODIOZKO GUTUN LEHIAKETA** antolatu du. Lanek gehienez bi orrialdetako luzera izango dute eta lema batez sinatuak joan behar dira. Egilearen datuak sobre itxi batean sartuko dira azalean lanaren lema jarritz. Gutunak ondoko helbidera bidali behar dira: "Amodiozko Gutunen III. Berrigara Lehiaketa". Jardun Elkartea, Masterreka 13, behea. Epea urtarrilaren 26an amaituko da. Irabazleak 75.000 ptako saria jasoko du.

III Gabriel Celaya **NAZIOARTEKO POESIA LEHIAKETA** antolatu du Torredonjimeno Udalak (Jaén). Lanek gazteleraz idatzia behar dute izan, gutxienez 550 bertso eta gehienez 700. Gaiari dagokionean, berriz, librea. Lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 31 izango da eta helbide honetara bidali behar dira: Casa Municipal de Cultura. Pza de la Victoria, 2 - 23.650 Torredonjimeno, Jaén. Telefono zenbakia: 953-572202.

Antzez artikulu eta gidoientzako **"NARRUZKO ZEZEN" SARIAK** antolatu ditu Eibarko Unibertsitate Laboralak. Artikuluak antzerkiarekin zer ikusia duten gaietaz izan behar dira: iritziak, kritikak... Lanek gutxienez bi eta gehienez hiru orrialde izan behar dute. Hiru maila daude, A, 13 urtera arte, B, 14-16 bitartean eta C, 17-25 urte bitartekoentzat. Antzerki gidoeiei dagokionean, A taldean (15 urtera arte) 6 folioko hedadura behar dute izan lanek gutxienez eta 10-12 folio B taldean (25 urtera arte). Lanak aurkezteko epea otsailaren 15ean amaituko da eta ondoko helbidera bidali behar dira: "Narruzko Zezen" saria Egoitz zentroa (Hezkuntz Konplexua), Otaola Hiribidea, 29. 20600 Eibar. Argibide gehiago 10 84 44 telefono zenbakian.

Otsailean kaleratuko da **KOK-ART** komiki fanzinearen 1. zenbakia

Orain aste batzuk komiki fanzine bat ikusi ahal izan genuen herriko zenbait taberna eta dendatan. **KOKOE** komiki taldeak argitaratzen du aipatu fanzinea. Komikiak ezezik, bestelako artikulu idatziek ere izango dute tokirik bertan, norbaitek hala nahi izango balu.

Fanzine hau argitaratzea zen hasera batetik **KOKOE**ek zeukan helburua. Komiki taldeko partaideek, egiten dituzten lan ezberdinak argitaratu nahi zituzten, nolabaik, beraien lana erakutsi nahi zuten, beraienez ezezik, jendearentzat ere marrazten baituzte.



Fanzinea printzipioz bi hilabete behin argitaratuko da. Gazte hauek epe horretan egiten dituzten lanek aurrerantzean izango dute non agertua. Oraingo asmoa, beraz, jendeari bi hilabetero komiki argitarapen bat kalean izango dela jakinaraztea da. Zero zenbakia nahiko harrapatuta egin zuten. Aurrerantzean, ordea, 32 orrialdetako fanzinea izango da. Mikel Kornejo eta Iban Barreneitea istorio luzea egiten hasi dira, zenbakiz zenbaki garatzen joango dena, jarraipena izango duena. Gai nontzekoak, mementuz, hasera eta amaiera duten kontakizunak izango dira. Lanak beraien artean erakutsi eta moldatzen dituzte, elkarrekin nahiko kritikoak dira, onerako, noski. Bakoitzak bere iritzia ematen du eta horren arabera, lanen nondik norakoa era batera edo bes-

tera izaten da. **KOK-ART** izeneko fanzinea Elgoibarren ezezik Estatu mailan ere banatzen da **COMICTIVA** aldizkariaren gehigarri bezala. **KOKOE**en nahia ahalik eta jende gehienari iristea denez, eta Estatu mailako irakurleak ere izango dituztenez, gazteleraz idatzia izango da, gehienbat, nahiz eta nahi duenak euskaraz ere idatz dezakeen.

Fanzinea 50 ptagatik salduko da eta Elgoibarren hainbat tabernatan eskura daiteke. Salmentaz ezezik, publizitatearen bitartez ere lortzen dute finantziarioa. Herriko merkatariegana jo dute beraien eskaintza azalduz, publizitate moduloak baina marraztuak, **KOKOE**ek berak diseinaturiko publizitate moduloak, alegia, denda bakoitzak berea izango duelarik.

Garajeak

GARAJE BAT saltzen dut, ganbara eta guzti "Anaiak" edifikazioan. Prezio onean.
☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

GARAJE ITXI BAT alokatzen dut Santa Ana 46 zenbakian.
☎ 74 13 67

Salerosketak

MENDI ZATI BAT erosiko nuke pinua sartzeko edo sartuta badago ere bai.
☎ 75 61 86

AEG markako erropa lehertzeko SEKADORA BAT saltzen da. Berria dago.
☎ 74 34 06

Randy markako PATIN BATZUK (bi errobera aurrean eta bi atzean) saltzen dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.
☎ 74 17 60

ARGAZKI KAMARA BAT SALGAI. Yashica 108 Reflex Multi/Program 35-70 Zoom. Flash-a eta funda opari gisa. Egoera oso ona eta prezio oso merkea.
☎ 74 18 61

VOLKSWAGEN GOLF GTI 16V. (SS-AF) SALTZEN DUT. Prezio interesgarria.
☎ 74 42 59 Jose Mari

"Silver Cross" markako KOTXE KAPOTA BAT saltzen dut. Oso ondo dago.
☎ 74 11 28 Juani
☎ 74 20 77 Gloria

NINTENDO KONSOLA ETA 6 JOKU saltzen ditut. Prezio onean.
☎ 74 13 97
8,30etatik aurrera

Desmontatu daitezkeen APAL METALIKOAK saltzen dira. Egoera onean.
☎ 74 01 75

Castellano estiloko LOGELA BAT saltzen dut. Ohea, 1'35; armarioa, bi mahaitxo eta tokadorea ispiluarekin.
☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

Ordenadorerako MAHAI BAT eta balkoirako ZAPATERO ARMARIO BAT saltzen ditut. Berri berriak. Fondoa 45 zm., Altuera 1,40 m. eta zabalera metro bat.
☎ 74 34 86

Etxebizitzak

ETXEBIZITZA BAT alokatuko nuke.
☎ 74 14 63

LOKAL BAT daukagu alokatzeko Ermuaranbiden 16 - 2. solairua. 325 m².
☎ 75 19 44 Mari Luz

Lana

Mutil euskalduna aste osorako EDOZEIN LAN EGITEKO eskeintzen da. Gidatzeko karneta B1.
☎ 74 23 30 Josu

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.
☎ 74 41 75 Txari

OHoko irakasle eta Ingenieritza tituloak ditut eta PARTIKULARRAK EMATEN DITUT.
☎ 74 01 48 Alazne

Ingelesa ikasi nahi duen NESKA BAT behar dugu haurrak zaintzeko LONDRESEN ELGOIBARKO FAMILIA batean. Apiriletik aurrera
☎ 74 08 17

PEDAGOGIAN lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin, OHoko eta REMeko klase partikularrak ematen ditu euskaraz zein gazteleraz.
☎ 74 39 24 Maite

PSIKOLOGIAN LIZENTZIATUA naiz eta OHoko klaseak ematen ditut. Emaizta onak.
☎ 74 14 14

HAURRAK ZEIN NAGUSIAK ZAINDUKO NITUZKE. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.
☎ 74 21 88 Pilar

Bestelakoak

Urtarrilaren 9an, Maalako iturriaren ondoan, MOTXILA BAT galdu nuen. Barruan Hiztegia 2000 zuen.
☎ 74 24 43 Koro

P. Muguza eta King-Kong artean BELARRITAKO BAT GALDU NUEN. Perla urdin bat du.
☎ 76 02 33

BELARRITAKO BAT galdu nuen abenduaren 8an. Lazo forma dauka eta erdian perla zuri bat du.
☎ 74 19 71

Perla urdinak dituen PULTSERA BAT galdu dut. Aurkitzen duena saritzeko prest nago.
☎ 74 05 74 Maite

CARITASEK sukalderako nahiz salarako ARMARIO BAT behar du.
☎ 74 15 09
☎ 74 12 57

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitala.756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emaileak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....112131
Taxi Geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79
I.M.H.74 41 32
Institutua74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 22 67
El Correo Español...74 10 82
Egin.....11 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki74 34 74

OSTIRALA

19,00 IKASTOLAKO JAIALDIA

✓ Kiroldegian

22,00 SAN ANTON PILOTA
TXAPELKETAKO FINALAK

✓ Ikastolako frontoian

22,15 ZINEA

"Junior"

LARUNBATA

12,00 GABONETAKO
TXAPELKETAKO ARGAZKI
RALLYAREN SARI BANAKETA

✓ Kultur Etxean

16,00 GARE IRRATIZALETUEN
BILERA

✓ Kultur Etxean

19,30-22,15 ZINEA

"Junior"

Z I N E A



El cuervo

Zuzendaria: Alex Proyas
Antzezleak: Brandon Lee, Ernie Hudson, Michael Wincott, David Patrick Kelly.

Eric Draven, rock talde ospetsu bateko kitarra jolea, eta bere emaztegaia hil zituztenetik urtebete pasa da. Top Dollar izeneko tipoa da hilketen arduradun. Mendekua lortzearren Draven beste mundutik itzuliko da. Bere hiltzaileak hiltzen joango dira banan banan. Top Dollar-ek hiriarri sua ematea erabakiko du "Deabruaren Gaua"ren bezpera egunean.

IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"Junior"

✓ Herriko Antzokian

ASTELEHENA

17,00 IPUIN KONTALARIAK

"Hika" taldea

✓ Udal Liburutegian

22,15 ZINEA

"Junior"

✓ Herriko Antzokian

Z I N E A



Junior

Zuzendaria: Ivan Reitman
Antzezleak: Arnold Schwarzenegger, Danny De Vito, Emma Thompson, Pamela Reed.

Alex Hesse mediku eta zientifiko ospetsua eta bere lagun Larry Arbogast mediku ginekologoa "Espenara" izeneko droga berria ikertzen ari dira. Honi esker, edozein emakumek haurdunaldi erraza eduki ahal izango du. Orain arte, tximinoekin egin dituzte frogak baina hurrengo urratsa gizakiekin esperimentatzea izango da. Izan ere, Alex Hesserren gorputzarekin esperimentatuko dute.

ASTEARTEA

09,00 IRUDI BIZIAK: ZINEA

OHoko ikasleentzat

"La señora Doubtfire"

✓ Herriko Antzokian

ASTEAZKENA

19,30 MORKAIKOREN BATZAR
OROKORRA

✓ Kultur Etxean

OSTEGUNA

19,00 HITZALDIA

Gaia: Reiki erlajazio teknika

Hizlaria: Ana Otero

✓ Kultur Etxean

19,00 IRUDI BIZIAK: EZTABAIDA

Ertainetako gurasoentzat

✓ Herriko Antzokian

OSTIRALA

22,15 ZINEA

"El cuervo"

✓ Herriko Antzokian

txandak

FARMAZIAK:

21, larunbata: Yudego

22, igandea: Yudego

23, astelehena: Ormazabal

24, asteartea: Ormazabal

25, asteazkena: Ormazabal

26, osteguna: Ormazabal

27, ostirala: Bidasolo

OKINDEGIA:

22, igandea: ZABALETA



ALTZARIAK

Santa Ana, 4-6. Tel. 74 12 34 - ELGOIBAR



KOLORETAKO
PUBLIZITATEA
preziorik onenentan.

2.000 pezetatik
egin dezakezu
PUBLIZITATEA.



BARREN

ELGOIBAR, ALTZOLA
eta MENDARON
PUBLIZITATEA
egiteko modurik
ERAGINKORRENA.

BARREN 3.200
BUZOITARA sartzen da eta
12.000 IRAKURLE ditu.

